Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko apirilaren 15a, ostirala — 70 — Viernes, a 15 de abril de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ELGETAKO UDALA

*Behin betiko onarpena ematea Elgetako Ortu Parkeko Udal Ordenantzaren lehen aldaketari.*

Udal honetako udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23ko batzarrean hasierako onarpena eman zion Elgetako Ortu Parkeko Ordenantzaren aldaketari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2016ko martxoaren 4an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 43. zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamazio zein iradokizunik, Ordenantza onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da aldatutako artikuluen testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da euskal autonomia erkidegoko auzitegi nagusiaren administrazioarekiko auzietako salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurretik, udalbatzarraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

ERANSKINA

*Elgetako Ortu Parkeko udal ordenantzaren lehen aldaketa.*

2. artikulua «Aplikazio eremua» honela idatziko da:

* «2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Araudiaren aplikazio-eremu objetiboak Elgetako Baratze Parkearen barruan dauden lursail guztiak hartzen ditu.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko aukera duten pertsona guztiei, Araudi honetan baratzeak adjudikatzeko aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Elgetako Baratze Parkea proiektuaren helburu nagusiak.

— Aisialdi aktiborako topagune bat sustatzea.

— Bizi-kalitatea eskainiko duen berdegune berri bat sortzea.

## AYUNTAMIENTO DE ELGETA

*Aprobación definitiva de la primera modificación de la ordenanza reguladora del uso del Parque de Huertas de Elgeta.*

El Pleno Municipal, en sesión ordinaria celebrada el 23 de febrero de 2016, acordó aprobar inicialmente la modificación de la «Ordenanza reguladora del uso del Parque de Huertas de Elgeta».

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 43 de fecha 4 de marzo de 2016 y no habiéndose presentado por parte de los interesados reclamación ni sugerencia alguna, se tiene por aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, a continuación se procede a publicar como Anexo a este anuncio el texto de los artículos modificados de la citada Ordenanza, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra este acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

ANEXO

*Primera modificación de la ordenanza reguladora de Elgetako Baratze Parkea.*

El artículo 2 «Ámbito de aplicación» queda redactado como sigue:

* «Artículo 2. Ámbito de aplicación.

El ámbito objetivo de aplicación del Reglamento abarca todos aquellos terrenos incluidos dentro de Elgetako Baratze Parkea.

En cuanto al ámbito subjetivo, la reglamentación contenida en esta norma, será de aplicación a todas las personas que puedan optar al uso, disfrute y aprovechamiento de los huertos ecológicos de ocio y que cumplan los requisitos previstos en este Reglamento para su adjudicación.

Objetivos principales del proyecto Elgetako Baratze Parkea.

— Fomentar un lugar de encuentro para el ocio activo.

— Crear una nueva zona verde que proporcione calidad de vida.

EK\CV GAO-I-2016-02434

— Nekazaritza ekologikoa bultzatzea.

— Erabiltzaileen artean ingurumenarekiko errespetua sustatzea, haurren artean bereziki.

— Gizarte-talde desberdinen arteko elkarbizitza eta giza harremanak bultzatzea; euskal kultura eta hizkuntza sustatzea, eta hizkuntza-aniztasuna balioan jartzea; gizon eta emakumeen arteko proportzioa zaintzea; belaunaldien arteko trukea bultzatzea, eta arazoak dituzten giza taldeei laguntzea».

10. artikulua «Onuraduna izateko baldintzak» honela idatziko da:

* «10. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak.

Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Elgetako udalaren aurrean eskaera egiten duten pertsonak. Gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Fisikoki gai izatea aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko.

Adingabeen eskabideek aita, ama edo tutoreen abala dutela etorri beharko dute, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

b) Elgetako Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

c) Zigorrik ez izatea lehenago aisialdirako beste baratze ekologiko baten jabe izan delako, Araudi honetan horrela aurreikusiten baita».

11. artikulua «Lizentziak emateko prozedura» honela idatziko da:

* «11. artikulua. Lizentziak emateko prozedura.

1. Aisialdirako baratze ekologikoak okupatzeko eta beroiek erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak banatzeko prozeduran aplikatuko den erregimena izango da konkurrentziarena, kontuan izanik lizentzia kopurua txikia dela. Hala ere, arau hori ez da intereseko taldeei aplikatuko, horientzat udalak lursailak gorde ahal izango baititu beren erabilera espezifikorako.

2. Prozedura hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak horretarako Ebazpena egin ondoren; ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoak okupatzeko lizentziak lagatzeko deialdia, dela baratze guztiei dagokiena, dela baratz horietako kopuru mugatu bati dagokiona. Deialdi hori Udaletxeko Ediktuen Panelean argitaratu beharko da, baita Udalaren web orrian ere (www.elgeta.org).

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonek eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialari jarraituz. Eskabideari erantsi behar zaizkio eredu ofizial horretan eskatutako dokumentuez gain, honako dokumentu hauek:

a) NANa edo horren ordezko den beste agiri legalen baten fotokopia.

b) Aurreko Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena.

Elgetako Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatzea eta erresidentzia betetzen direla, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.

13. artikulua «Lizentzien esleipena eta ordezkoen zerrenda» honela idatziko da:

* «13. artikulua. Lizentzien esleipena eta ordezkoen zerrenda.

— Fomentar la agricultura ecológica.

— Fomentar el respeto al medio natural entre los usuarios, y especialmente, en los niños.

— Fomentar la convivencia y las relaciones humanas entre diferentes grupos sociales; fomentar la cultura y lengua vascas y poner en valor la diversidad lingüística; respetar la proporción entre hombres y mujeres; fomentar el intercambio generacional y ayudar a los colectivos desfavorecidos».

El artículo 10 «Requisitos para ser beneficiario» queda redactado como sigue:

* «Artículo 10. Requisitos para ser beneficiario.

Podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio las personas que lo soliciten ante el Ayuntamiento de Elgeta. Deberán cumplir, con los siguientes requisitos:

a) Encontrarse capacitado físicamente para la realización de las labores agrícolas y de cultivo a desarrollar en el huerto ecológico de ocio.

Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, la madre o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de éste Reglamento.

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Elgeta.

c) No haber sido sancionado en razón a la posesión anterior de huertos ecológicos de ocio por incumplimiento previsto en el presente Reglamento».

El artículo 11 «Procedimiento para la concesión de licencias» queda redactado como sigue:

* «Artículo 11. Procedimiento para la concesión de licencias.

1. El procedimiento aplicable al otorgamiento de las licencias que habiliten para la ocupación de los huertos ecológicos de ocio y que faculten para su uso y disfrute, será en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas. No obstante dicha regla no será aplicable para los grupos de interés para los cuales el Ayuntamiento de Elgeta podrá reservar parcelas para su uso específico.

2. Dicho procedimiento se iniciará de oficio por el Ayuntamiento, previa Resolución en tal sentido dictada por el órgano local competente, en la que se contendrá la convocatoria de concesión de licencias de ocupación de huertos ecológicos de ocio, bien referida a la totalidad de las huertas o a un número limitado de ellas. Dicha convocatoria será objeto de publicación en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, así como en la página web (www.elgeta.org) del mismo.

3. La persona interesada en la adjudicación de los huertos ecológicos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. A la solicitud deberá acompañar, además de los documentos que se exijan en el aquel modelo normalizado, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el artículo anterior.

El Ayuntamiento de Elgeta comprobará de oficio el empadronamiento y la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento».

El artículo 13 «Adjudicación de licencias y lista de suplentes» queda redactado como sigue:

* «Artículo 13. Adjudicación de licencias y lista de suplentes.

EKCV GAO I 2016 02434

Adjudikaziodunei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko du zein diren baratzaren xedea, definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Eskabidea gutxi baloratu zaielako aisialdirako baratze ekologikoak adjudikatzeko lizentziarik eskuratzerik izan ez duten pertsonak sartuko dira, jasotako balorazioaren arabera, ordezkoen zerrenda batean zeina baratze mota bakoitzaren arabera sailkatuta egongo baita. Ordezkoen zerrenda hori erabiliko da bajak betetzeko baldin eta lizentziaren bitartez jasotako eskubidea nahita edo ezinbestez galtzen bada edo eskubideari uko egiten bazaio; kasu horietan, dei bat egingo zaio hurrengo hautagaiari, aipatutako zerrendan duen ordenaren arabera, lizentzia indarrean dagoeneko epearen zein jarritako laborea emankor dagoeneko epearen barruan.

Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia adjudikatu ondoren, adjudikaziodunak autolikidatu beharko du urteko kuotaren kopurua eta fidantzari dagokion zenbatekoa eman, esleitutako lizentzia jasoko badu. Fidantza itzuliko da esleipenerako epea igaro ondoren, non eta denboraldi berrirako beste baratze baten adjudikazioduna izan ez bada.

Ortuen erabilera egiteko eskatzaileen artean Elgetan erroldatuta dauden pertsonak egonez gero, hauek lehentasuna izango dute ortu horien esleipenean, erroldatu gabe daudenen aurretik.

Behin esleituta dagoen ortu bati uko egiten bazaio, lehentasuna izango dute ondorengo esleipenerako Elgetan erroldatuta dauden eta aurrez eskaria egin eta esleipenik gabe geratu diren pertsonek.

Ez badago Elgetan erroldatuta dagoen pertsonarik, ortua esleituko zaio Elgetan erroldatu gabe erabilera eskatu duten pertsonei».

14. artikulua «Zozketa» honela idatziko da:

* «14. artikulua. Zozketa.

Elgetako Baratze Parkeko lursailak emateko zozketa egingo da interesa dutenen artean. Lehenik Elgetan erroldaturiko eskatzaileen artean zozketatuko da. Elgetan erroldaturiko nahiko eskatzaile ez dagoenean eta partzelak soberan daudenean, Elgetan erroldatuta ez daudenen artean egingo da zozketa. Partzela bakoitzak zenbaki bat izango du eta zozketa bitartez zenbakia egokitzen zaiona izango da haren erabiltzailea».

28. artikulua «Erabiltzaile izaera galtzea» honela idatziko da:

* «28. Artikulua. Erabiltzaile izaera galtzea.

1. Araudi honetan xedatutakoa ez bada betetzen galdu egingo da aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile-izaera eta, beraz, erabiltzaileak ordura arte zuen erabilera erkide berezirako eskubidea eta baratzea erabiltzeko eskubidea eta baimena.

2. Bereziki, erabiltzaile eskubidea galarazten dute honakoek:

— Baratzea erabiltzeko eskubideari uko egiteak edo bertan behera uzteak, uko egitea onuradunak Udalean aurkeztutakoan.

— Heriotzak edo baratzeko berezko lanak garatzeko ezintzen duen gaixotasunen bat izateak.

— Lursailaren laborantza edo erabilera hilabete baino gehiagoz bertan behera uzteak.

La licencia que se conceda a los adjudicatarios, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones del usuario y la vigencia de la licencia.

Aquellas personas que por menor valoración de sus solicitudes, no hubieran sido beneficiarias de la obtención de una licencia para la adjudicación de algún huerto ecológico de ocio, pasarán a integrar una lista de suplentes para cada uno de los tipos de huertos, en función de la valoración que hubiesen obtenido y que será utilizada para cubrir bajas para los casos de renuncia o pérdida voluntaria o forzosa del derecho otorgado a través de la concesión de la licencia de ocupación para el uso y disfrute de los huertos ecológicos, realizándose un llamamiento al siguiente candidato según el orden que ocupara en la lista referida, dentro del periodo de vigencia de la licencia y del periodo fértil del cultivo.

Una vez adjudicada la licencia que autoriza el uso del huerto, el adjudicatario deberá autoliquidar el importe de la cuota anual y depositar y el importe de la fianza correspondiente establecido a fin de recibir la correspondiente licencia concedida.

La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, sin haber resultado adjudicatario de otro huerto para esa nueva temporada.

En caso de que entre los solicitantes de las licencias de uso de los huertos haya personas empadronadas en el municipio de Elgeta, éstas tendrán preferencia en la adjudicación de dichas parcelas en detrimento de las personas no empadronadas.

En caso de que una vez adjudicado una parcela a uno de los solicitantes, éste renuncie a la misma, tendrán preferencia para la posterior adjudicación de la parcela liberada los solicitantes empadronados en Elgeta que hubiesen quedado sin la parcela en la anterior adjudicación. En caso de no existir dicha persona empadronada en Elgeta, se procederá a adjudicar la parcela entre las personas no empadronadas y que hayan solicitado su uso».

El artículo 14 «Sorteo» queda redactado como sigue:

* «Artículo 14. Sorteo.

Las parcelas de Elgetako Baratze Parkea se sortearán entre las personas interesadas. Primeramente se sortearán las parcelas entre los solicitantes empadronados en Elgeta. En caso de que sobrasen parcelas por no haber suficientes solicitantes empadronados en Elgeta, se procederá al sorteo de las parcelas restantes entre los solicitantes no empadronados en Elgeta. Cada parcela será identificada con un número, y la persona a quien por sorteo le corresponda dicho número resultará ser la usuaria de la parcela correspondiente».

El artículo 28 «Pérdida de la condición de usuario» queda redactado como sigue:

* «Artículo 28. Pérdida de la condición de usuario».

1. El incumplimiento de lo estipulado en la presente Reglamento, provocará la pérdida de la condición de usuario de los huertos ecológicos de ocio y consecuentemente, del derecho de uso común especial del que se venía disfrutando y la pérdida de la autorización y del derecho al uso del huerto.

2. En especial causan la perdida de la condición de usuario:

— Desistimiento o renuncia a su derecho, presentada por el beneficiario del uso del huerto ante el Ayuntamiento.

— Defunción o enfermedad que incapacite al usuario para desarrollar las labores propias del huerto.

— Abandono en el uso o cultivo de la parcela, durante más de un mes.



EK/CV GAO-2016-02434

— Adjudikazioa arrazoitu zuten beste edozein zirkunstantzia desagertzeak.

— Araudi honetan aipatzen diren bateraezintasun edo debekuen konkurrentziak.

— Baratzea ibiltzeak Araudi honetan xedatuta ez dauden erabileratarako eta helburuetarako.

— Udalak edo beste Herri Administrazio batek Hirigintza edo azpiegitura planen bat onartzeak, baldin eta planak aisialdirako baratze ekologikoen lurretan zuzkidura publiko bat ezartzea eragiten badu. Kasu horietan, aipatutako Planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitorpen bat ere izan behar du, eskatzen diren lursailen erabilerarentzako tituluen balioa indargabetuko duena.

— Bizikidetza, auzokidetza edo elkartasunik gabeko jarreren inguruko oinarrizko arauak ez betetzea beste erabiltzaileei dagokienez.

— Huts-egite arin, larri edo oso larriengatik isun bat jartzea, baldin eta isunarekin batera lizentzia galtzea eragiten duena bada».

AZKEN XEDAPENA

Ordenantzaren lehen aldaketa hau indarrean jarriko da testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epea igarotakoan.

Elgeta, 2016ko maiatzaren 20a.—Iraitz Lazkano Garitaonandia, alkatea. (2434)

— Por desaparición sobrevenida de cualesquiera otras de las circunstancias que motivaron la adjudicación.

— Concurrencia de cualquiera de las incompatibilidades o prohibiciones que se detallan en esta Reglamento.

— Utilización del huerto para uso y finalidades diferentes a las establecidas en este Reglamento.

— Aprobación de un Plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio. En estos casos, la aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales.

— Incumplimiento de las normas básicas de convivencia, relaciones de vecindad o conducta insolidaria, para con los demás hortelanos.

— Imposición de una sanción por falta leve, grave o muy grave, que conllevan siempre aparejada la revocación de la licencia».

DISPOSICION FINAL

La presente primera modificación de la Ordenanza entrará en vigor en el plazo de quince días hábiles desde la publicación de su texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Elgeta, a 20 de mayo de 2015.—El alcalde, Iraitz Lazkano Garitaonandia. (2434)

EK/CV GAO-2016-02434